

See discussions, stats, and author profiles for this publication at: <https://www.researchgate.net/publication/286180511>

Bisontes, renos y peces en las paredes de Altxerri

Article · January 2012

CITATIONS

6

READS

48

2 authors, including:



Aitor Ruiz-Redondo

University of Southampton

29 PUBLICATIONS 122 CITATIONS

[SEE PROFILE](#)

Some of the authors of this publication are also working on these related projects:



BALKARTS: Looking for the Origins of Art: BALKans Archaeological Rock arT Survey [View project](#)



PALAEORTEAST: "Defining cultural boundaries in the European Upper PALAEOLithic: Archaeology and Rock arT in EASTern Europe" [View project](#)

VI.

*Kapituloa***Bisonteak, elur-oreinak eta arrainak Altxerriko hormetan**

AITOR RUIZ REDONDO Y CÉSAR GONZÁLEZ SAINZ
KANTAURIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE CANTABRIA

Altxerriri buruz hitz egiten dugunean, bi horma-atali buruz ari gara, karst-multzoo berean daudenak. Ziur asko, bi haitzulo izango ziren jatorrian, eta bakoitzak bere sarrera izango zuen. Paleolito garaian ere halaxe erabili ziren, bereizita. Haitzulo horien artean, beraz, bada distantziarik, eta, gainera, ez ziren garai berean erabiliak izan Goi Paleolitoan. Hori horrela, kokapen-espazioan eta erabilpen-denborak dituzten aldeei erreparatuko diegu hemen.

Espazioari erreparatuta, Altxerriko sistema karstiko konplexuaren topografiak erakusten digu, oso labur adierazita, hiru galeria dituela, eta, gutxi gorabehera, ibilbide paraleloak egiten dituztela, altuera ezberdinetan, bailararen gainean. Puntu batzuetan, lotu egiten dira galeria horiek, leizeen eta tximinien bidez. Gaur egun, erdiko galeriaren ertz batean ireki den zulo artifizial batetik sartzen da sistema karstiko horretara. Galeria horren jatorrizko sarbideetako baten ondo-ondoan dago sarlekua. Sarbide hura itxi egin zen Goi Paleolitoaren ostean, luitzen ondorioz. Erdiko maila horretan daude ezagutzen diren elementu grafiko gehienak, grabatuz eginak edo beltzez pintatuak guzti-guztiak. Jatorrizko sarbideetik 140 metro pasatxo egin behar dira sakonera handienera dauden irudiak ikusteko; zehazki, beheko galeriara sartzeko pasabiderik errazena eskaintzen duen ur-jauzi baten oinuan daude. Beheko galeria oso gertu dago ibaiaren ibilguaren mailatik, eta sarritan geratzen da urpean. Orain bitartean, ez da Paleolitoan datatutako horma-irudirik aurkitu galeria horretan. Erdiko galeriako horma-egiturek eta irudiek eta beheko galeriara joateko leizekoek osatzen dute Altxerriko lehen horma-atalen multzoa. Hori izan da, betidanik, ezagunena eta irudi gehien dituen.

Erdiko galeria horren sarrerako eremuaren amaieran, ia bertikala den tximinia bat abiatzen da, 12 metro ingurukoa —Paleolitoan, ziur asko, ezin izango zuten baliatu—, eta goiko galeria batera eramaten duena. Gorri pintatutako irudiak ikus ditzakegu galeria horretako zenbait hormatan, hezur-aztarnak zoruaren gainean eta, Paleolitoan haitz-hormaren arrail batean sartu zen behi-bertebra bat. Kanpotik galeria horretara sartzeko sarbide zuzen bat izan zitekeena ere aurkitu da, baina itxita dago gaur egun. Goiko galeria horrek biltzen dituen irudien eta aztarna antropikoen multzoari Altxerri B esaten diogu.

Denborari erreparatuta, labar-arteak biltzen duten bi multzoek, Altxerrik eta Altxerri B-k, ezaugarri oso diferenteak dituzte. Izan ere, desberdinak dira haietan erabilitako prozedura teknikoak eta irudikatutako animaliak. Bi multzoetan animalia baten bat errepikatzen denean ere (bison-arteak, esaterako), aldatu egiten da irudia margotzeko modua. Bi multzo horiek, beren aldetik, badute antzik edo paralelismo irudialde kantauriarrean eta Frantzia dauden labar-arteredun beste haitzulo batzuekin. Momentuz datazio zuzen erabatekorik ez dugunez, ezaugarri komun horiek laguntzen digute haiek denboran kokatzeko. Zaharrena, zalantzarik gabe, goiko galeriako (edo Altxerri B-ko) horma-irudien multzoa da, oraingo garaia baino 36.000 - 22.000 urte lehenagokoak direla uste baita (hemendik gutxira datazio zehatzagoak egiteko moduan izango gara uste dugu). Erdiko galeriako irudiak, berriz, oraingo garaia baino 14.500 - 11.700 urte lehenagokoak dira, inguruko haitzuloetako irudiekiko duten antzekotasunari erreparatuta (eta kronologia erradiokarboniko tradizionalak ere horixe bera diosku), baina baditu berezitasun nabarmen batzuk ere, eta hemen azalduko ditugu.

Oso litekeena da goiko galeriarako sarbide naturala Goi Paleolitoko bertan itxi izana, erdiko galeria erabili zen garaia baino askoz lehenago. Finean, eskura ditugun datuek adierazten digute Altxerriko muinoak labar-arte baten gune dituela, oso ezaugarri eta kronologia desberdinekoak. Bi multzo horietako arte-adierazpenek irudien bidez adierazten dute zonalde horretan eta Goi Paleolitoko bi garaia oso desberdinetan bizi izan ziren giza taldeen kezka eta pentsamoldea. Hala, Goi Paleolitoko garaia oso antzinakoak erakusten dizkigu Altxerri B multzoak, goiko galerian, eta aro horretako garaia oso aurreratuak Altxerri multzoak, erdiko galerian eta beheko galeriara sartzeko leizean.

Animalien irudiak, giza formako irudiak eta bestelako irudiak topatu dira Altxerri. Guztira, 150 unitate grafiko aztertu ditugu Altxerri, eta Altxerri B multzoan, berriz, gutxienez 14. Azken zenbaterako hori handitu egin daiteke laster, multzoa aztertze-fasean baitago oraindik. Irudien gaiak aztertuz gero, hiru gai-multzo handi bereiz ditzakegu: irudi figuratiboak, hau da, animaliak eta giza formako irudiak, zeinu konplexuak eta gai sinpleak.

Irudi figuratiboak dira gehienak, 110 guztira. Zehazki, 68 bisonte dira, 7 elur-orein, 6 ahuntz, 5 zaldiak, 4 arrain, alegiazko 2 animalia, uro bat, orein bat, hartz bat (animalia horren zati bat baino ez da ikusten irudian), sarrio bat, erbi bat, azeri bat, suge bat, hegazti bat, giza formako irudi bat, eta animalien beste 9 irudi. Azken bederatzi animalia horiei dagokienez, ezin izan da zehaztu zer animalia diren edo ez da erabat ziurra zer animalia diren. Horrez gainera, Altxerri B multzoan, labar-arte baten horma handi batean, bisonte bat eta lehoi baten itxura guztia duen animalia bat ikusten dira gainjarrita, bai eta beste animalia batzuen irudi oso difuminatuak ere.

Datu horiek guztiek ageriko bi konklusio dakartzakigute. Alde batetik, bisonteen kopurua zonalde honetan askoz handiagoa zela gainerako espezieena baino, eta, bestetik, irudiek animalia-mota ugari erakusten dituztela, Paleolitoko beste multzo batzuetan ohikoak direnak baino askoz gehiago. Altxerriko irudiek dagokienez, nabarmentzekoa da, era berean, figura abstraktu konplexu gutxi daudela, eta ez dela zeinu konbentzional bakar bat ere ageri. Erdiko galeriaren multzoan, 5 figurak soilik dute konplexutasun-mailaren bat (obaloak eta gurutze bat, grabatuak denak ere), eta horietako bat bera ere ez da ohikoa, garaia hartako labar-arte baten multzoetako erreparatzen badiegu. Figura sinpleak ugariagoak dira, 35 zenbatu baititugu. Marra isolatuak dira, pintura beltzez egindako orban uniformeak eta, batik bat, eremu karrakatuak, multzoaren berezitasunetako bat.

Beriratu batean ikusten da Altxerri zeinu edo figura abstraktu gutxi daudela, baina horixe bera gertatzen da Altxerrikoaren garaiko irudiak dituzten beste haitzulo kantauriar batzuetan ere (Covaciella, Urdiales, Santimamiñe, Ekain...). Aitzitik, ohikoagoa izaten da figura abstraktuak topatzea garaia zaharragoko irudiak dituzten haitzuloetan eta garaia baino gehiagoko —normalean, Altxerrikoak baino lehenagoko— irudiak dituztenetan (Tito Bustillo, Llonín, Altamira, Castillo, Pasiega...).

Altxerri B labar-irudien multzoa, berriz, azterketen arabera, Altxerri baino txikiagoa eta askoz zaharragoa da. Figuratiboak ez diren irudi gehiago ditu, eta orain arte uste zena baino adierazgarriagoak dira haien kronologia zehatzeko. Gorriaz pintatutako animaliez gain, kolore horretako puntuen segidak ikusten dira, lerroetan antolatutakoak, bai eta puntu isolatuak, hartz-formakoak eta binaka jarritako marra ere. Horiez gain, kolore gorriko orban uniforme batzuk ikusten dira.

Irudien kokapena: irudien multzoak. Altxerriko multzoa da, adierazi dugun moduan, berriena kronologikoki, eta margotutako eremuen banaketa da haren ezaugarri nabarmenetako bat. Banaketa hori ez da ausazkoa edo uniforme haizulo osoan, eta irudiak ez dira ikusten, ezinbestean, margotuak izateko egokienak diren horma-ataletan (hala ere, eremu batzuetan ikusten da kareharrien gainalde garbi, lau eta egonkorrak aukeratu dituztela, orientazio eta altuera egokia dutenak artistek lan egin dezaten). Altxerriko artistek multzoak edo konposizioak osatu zituzten irudiekin, eta irudirik gabeko eremuak tartekatzen dira batetik bestera. Horrek esan nahi du ez dagoela figura bakartu edo isolaturik, multzoren bateak koka ezin direnak, eta kon-tuan izan behar da hori ez zela arau orokorra Paleolitoko arte-moldean.

Hiru eremu handi sailkatu ditugu haizulo horretan. Galeria nagusiaren ezker aldean irekitako albo-gune luzanga da I. eremua, grabatu ugari eta beltzez margotutako pintura batzuk dituena. Galeria nagusia bera da II. eremua, elkarrengandik bereizitako zenbait figuren multzoak dituen aldetik, eta beheko galeriara joateko leizea da III. eremua. Eremu horiek zehazteaz gain, zenbaki arabiarren bidez adierazi ditugu eremu bakoitzeko irudi-multzoak.

I. EREMUA. Irudien 11 panel edo multzo ditu galeria nagusiaren ezker aldean irekitzen den albo-gune luzangaren bi hormatan, eta pertsona-talde txiki bat hartzeko lekua du. Guztira, 60 unitate ditu. Animalien irudiak dira gehienak: 18 bisonte, 4 arrain, zaldi bat, orein bat, 2 elur-orein, 2 ahuntz, zaldi bat, erbi bat, azeri bat, hegazi bat, giza formako irudi bat, alegiazko animalia bat eta zehaztugabeko 3 animalia. Baina, horiez gain, 18 figura simple daude (lerroak, puntuak, etab.) eta 5 zeinu "konplexu" labar-arteko multzo osoan. Albo gune luzanga horretako irudi batzuk grabatuaren teknika erabiliz egin ziren, baina badira beltzez pintatuak ere, bereziki hondoa dauden paneletan. Teknika konplexuagoz egin ziren gune horren hondoko irudiak, eta garai hartako multzoetan ohikoak ziren egitura-banaketak ikusten dira (esaterako, bisonteak eta zaldiak elkarrekin azaltzea).

II. EREMUA. Eremu honek ditu irudien azalera handienak. Irudien multzoak argi eta garbi bereizita daude irudirik gabeko korridoreen bidez, eta azken horiek gune irudidunak baino zabalagoak izaten dira, pertsona batzuk hartzeko modukoak. Bost irudi-multzo dira guztira; hiru, galeriako ezkerreko horman daude (zenbaki bakoitiak), eta bi, eskuinekoan (zenbaki bikoitiak).

-II.1. multzoa. Guztira, 22 irudi dira, ezker aldeko horma-atal luze batean jarriak: 12 bisonte, hartz bat, ahuntz bat, uro bat, alegiazko animalia bat, zehaztu gabeko 2 animalia, eta 4 figura simple. Eremuan okerren kontserbatuta dauden irudietako batzuk ikusten dira multzo honetan; izan ere, horma ez da batere egonkorra eta haren zati batzuk erori egin dira. Gainera, graffiti moderno batzuk ikusten dira, eta pigmentu beltzaren kontserbazioari erasaten dioten beste prozesu batzuk ere eman dira, hura hondatu eta histu dutenak irudi gehienetan. Irudien gaiak, erabilitako prozedura teknikoak eta tamainak garai hartan erabiltzen direnak dira, eta ez dira, inondik inora, ausazkoak. Erdialdean, bisonte handiak dira nagusi, margotuta eta grabatuta. Ertzetan, beriz, irudi txikiagoak daude; gehienak grabatuta soilik daude, eta gai gehiago adierazten dituzte.

-II. 2. multzoa. Multzo hau II.1. multzoaren aurrean dago, eta bisonte bat eta bi figura simple soilik ageri ditu.

-II. 3. multzoa. Azpi-multzo honek ia gai bakar bat ageri du; izan ere, 14 bisonte ditu, neurri ugarietan eta prozedura tekniko askorekin eginda-koak, eta 3 figura simple. Kontserbazio-arazoak agerikoak dira azpi-multzo honetan ere, Paleolito garaiko pinturen eta grabatuaren gainean inskripzio bat-zuk egin baitziren haizuloa irekita edo zaintza egokirik gabe izan zen garaian.

-II. 4. multzoa. Irudien oso banaketa ikusgarria erakusten digu multzo honek, friso horizontal bat osorik hartzen baitute irudiek, eta horrek batasun-sentsazio handia sortzen du ikuslearengan. Horrez gain, agerikoa da lan ona egiten saiatu zirela, horma horretako irudi batzuk kalitate tekniko eta formal handia baitute. Multzoak 9 bisonte, 2 zaldi, 2 ahuntz, sarrio bat eta 3 figura simple biltzen ditu. Irudiak zerrenda paralelotan jarrita daude kareharrien estratuen aurrealdean jarriak edo haien orientazio berean, konposizio osoaren erdian —zaldi bat eta bisonte batzuk ikusten dira erdian kasu honetan ere—, eta horrek batasun-sentsazioa handitzen du. Hori horrela, Goi Paleolitoaren amaiera aldeko giza taldeentzat egitura eta esanahi eza-guneko konposizioa zela esan daiteke. Agerikoa da, halaber, Santimamiñeko konposizio nagusiaren oihartzuna.

-II. 5. multzoa. Multzo hau II.4. multzoko friso handiaren aurrean dago, eta beheko mailara eramaten duten bi leize ditu alboetan. Multzoak 16 irudi ditu: 5 bisonte, 4 elur-orein, suge bat, zehaztugabeko 3 animalia eta 3 figura simple.

III. EREMUA. Beheko galeriara jaisteko leizea da, eta, ziur asko, hori izango da hartara joateko biderik egingarriena, nahiz eta zaila eta arriskutsua izan. Gune honetan, irudien bi multzo bereiz ditzakegu; lehena leizearen sarreran dago, eta bigarrena, berriz, leizearen beheko aldean.

III.1. multzoa. Leizearen goiko aldean daude irudiak eta gehienak sabai inklinatu batean egin dira, haien egileak zuloaren ertzean dagoen erlaitz estu batean bermatzen zirelarik. 13 irudi ageri ditu: 7 bisonte, 2 zaldi, ahuntz bat (adarren formak piriniarra dela adierazten digute, Altxerriko gaine-rako ahuntzen moduan), elur-orein bat, zehaztugabeko animalia bat eta figura simple bat.

2.II. multzoa. Multzo hau III.1. multzoko azken irudien bertikalean dago, leizearen hondan. Lurzoruaren parean dagoen arrail baten gainean bermatuak daude konposizio honetako irudiak, lerroan jarritako bi bisonte handi.

ALTERRI B. Goiko haitzuloko galeria eta geletan daude irudiak. Panel bertikal zabal bat da garrantzitsuena eta ezagunena, nagusi baita haitzuloko areto handi batean dagoena. Animalien irudiak, zeinuak eta figura simple batzuk (hatz-formakoak eta binakako marrak) ageri dira panel horretan, margo gorriarekin eginak guztiak ere. Beste panel txikiago batzuetan, irudi ez figuratibo simple batzuk aurkitu dira: puntu bakanak, puntu-serieak eta forma zehatzik gabeko kolore-orbanak.

PROZEDURA TEKNIKOAK

Askotariko pintura-teknikez eginak daude Altxerriko bi haitzuloetako irudiak, eta hori da, hain zuzen, haien bereizgarrietako bat. Prozedura eta kolore bat baino gehiagoz egindako irudiak ditu haitzuloak, teknika askotan egindako grabatu eta karrakatuak, eta irudi batzuen egileek maisutasun handia erakutsi dute prozedurak konbinatu eta emaitza fin eta errealistak lortzeko. Kasu askotan, emaitza ikusgarriak lortzen saiatu ziren, eta, horretarako, garbitu egiten zuten jardun-esparrua lanean hasi aurretik.

Pinturari erreparatuz gero, esan behar da bi pigmentu-mota erabiltzen zirela, oro har, Paleolitoko artean: gorriaren gama (marroia, okrea, horiak, laranja-tonuak, etab.) eta beltzarena (intentsitate handiagokoz edo txikiagokoz). Zenbait modutan hauspeatutako edo metatutako burdin oxidoetatik eskuratzen da lehena (okreak). Bigarrena bi modutara lor daiteke, manganeso oxidotik edo egur-ikatzetik. Elementu naturalak dira biak, haitzuloetan topa daitezkeenak. Egiaztatu dugu multzo batzuetako irudiak egiteko kanpo-pigmentuak erabili zituztela, baina gehienak egiteko haitzuloan eskuratutako materialak edo egur-ikatzak erabili zuten. Pintura lehorra erabiltzen zuten batzuetan eta, beste batzuetan, uretan diluitua. Pintura hori emateko, hatzak erabiltzen zituzten, landarez egindako pintzelak, pinturari putz egiteko hoditxoak, larru-zatiak, ikatz edo okrezko "arkatzak" haiek lehorrean aplikatzeko, etab. Pintura-teknikak ere askotarikoak dira, eta gehienbat marra zuzenak erabiltzen bazituzten ere, aipatzekoak dira, halaber, puntudun marrak, tinta lauak, putz-egiteak eta de-gradatuak edo difuminatuak.

Altxerriin ageriko alde bat ikusten da bi multzoen artean, beltza soilik erabiltzen baita Erdiko galerian eta gorria Altxerri B multzoan. Azken horretan, irudi guztiak kolore gorrizkoak dira, baina bi tonalitate hauteman ditugu, kolore gorri bizikoa bata eta ubelxkara bestea. Pigmentua diluitua eman da bi kasuetan. Erdiko galerian, egur-ikatzek pintatuta daude irudi batzuk, eta beste batzuk, ziur asko, manganeso-disoluzioekin egingo zituzten. Irudi batzuen ertz-in-guruneak marra sinpleak baliatuta egin dira, eta haien barruan tintaren erabilpen graduatua egin da, bolumen-sentsazioa handitzeko.

Grabatu-lanei dagokienez ere, askotariko teknikak erabili ziren Paleolitoko labar-arteak: grabatze sinple eta bakarrak, sinple eta errepikatuak, ildokatuak, hatzez egindakoak, karrakatuak, kolpatze errepikatuak, behe-erliebea, etab. Azken bien kasuan izan ezik, teknika horien guztien adibideak ikus daitezke Altxerriin. Tresna-mota ugari erabili ziren, eta grabatu nahi zen gainazalaren ezaugarriak eta lortu nahi zen emaitzari erreparatzen zitzaion zer tresna erabili erabakitzeko. Irudiaren egilearen hatzak izan zitezkeen tresnak, lan hori egiteko berariaz prestatutako suharriak, hezurak edo adar-zatiak, haitzu-

loko hormen haitz-pusketak, egurrak, eta beste hainbat. Zer tresna erabili erabakitzeko, irudiaren euskarriaren gogortasunari eta ezaugarrirei erreparatzen zieten, eta lortu nahi zuten irudi-formatuari. Alde horretatik, ez zuten hainbesteko eraginik izango Goi Paleolitoan gertatutako balizko aldaketek.

Altxerriko erdiko galerian topatu dira, orain arte, haitzuloko grabatu guztiak, beltzez pintatutako irudi ugariarekin lotuta. Azken Madeleine aldian (14500-11700 BP) oso ohikoa zen estilo baten eginak daude. Soilik grabatuaren teknika erabiliz eginak dira 78 figura, eta 32 figura teknika konplexuagoekin eginak dira, grabatua eta margo beltza konbinatuta. Altxerrin topatu diren 110 irudi grabatuek argi eta garbi uzten dute zer-nolako erabilera handia izan zuten teknika horiek haitzulooan, kokapen, estilo eta kronologia paretsuko haitzulooetan (Covaciella, Urdiales, Santimamiñe, Ekain...) izan zutena baino handiagoa.

Teknikak konbinatzen dituzten irudiak dira, hain justu, multzoko irudi deigarrienak, emaitza oso naturalak eta estetikoak lortzeko erabili baitzituzten. Pintura eta grabatua konbinatzen dituzten 32 irudietatik, 28 bisonteak dira, eta horrek berriro bistarazten du animalia horrek multzoaren iruditerian duen garrantzia. Irudi batzuk oso konplexuak dira, eta bost prozedura tekniko erabili zituzten haiek egiteko. Esaterako, irudi batzuk egiteko, hormak arraspatu eta lisatu zituzten alde aurretik, trazu bakarreko grabatu sinpleez eta hainbat trazutako grabatu sinpleez baliatu ziren (lerro-trazu beltzez egindako soslaiak indartzeko), eta, azkenik, inklinazio edo gradiente jakin batez ematen zuten tinta, bolumen-sentsazioa handitzeko. Irudi horiek ikusita, agerikoa da Altxerriko labar-irudietako batzuk egin zituzten artistak eskarmentu handiko maisuak zirela.

Ezaugarri orokorrak eta berezitasunak Altxerrin. Paleolitoko labar-artearen ezagutzeko duen baliagarritasuna. Haitzulooa topatu zenetik nabarmendu dute ikertzaileek Altxerriko labar-multzoaren "berezitasuna". Altxerriko multzoaz hitz egiten dugu, eta ez "multzoez", hura topatu zen garaiko albisteez gain (Fernández García, 1966; Barandiarán, 1964), eta deskribapen eguneraturaren bat kenduta (Altuna, 1997), Altxerri B multzoa ez delako luze-zabal aztertua izan gaur egun arte. Horren erakusgarri argienetako bat da hau idazten ari garen garaian oraindik amaitu gabe daudela aztertze-lanak. Altxerriko haitzulooak baditu izan zenbait berezitasun deigarri, Europako hego-mendebaldean Paleolitoaren garaian egin zen labar-artearen ezaugarri orokorretatik aldentzen direnak, eta, ondorioz, labur azalduko ditugu hemen.

Altxerriko labar-irudiei buruz hitz egitean aurreratu dugun moduan, deigarria da animalia-espezie ugariaren irudiak ikus daitezkeela Altxerriko hormetan. Eta are deigarriagoa da, baldin eta kontuan hartzen badugu espezie horietako batzuk oso bakanak direla Paleolitoko labar-artearen. Lehenik eta behin, adierazi behar da Altxerrikoa dela, Asturiaseko Tito Bustillo haitzulooarekin batera, elur-orein gehien ageri dituena isurialde kantauriarrean. Elur-orein ugari ikusten dira Frantziako haitzulooetan, baina ez Iberiar Penintsulakoetan. Arrainen kopurua ere nahiko handia da (4 dira eta espezie ezberdinak), kontuan hartuta askoz ere sarriago ikusten direla artelan mugikorretan, labar-artearen baino. Ez da oso ohikoa, era berean, bi alegiazko animalia edo animalia fantastikoren irudiak ikustea garai horretako haitzulooetan; izan ere, horrelako 42 irudi soilik daude Europako hego-mendebalde osoan. Irudi horiek 13 haitzulotan ikus daitezke, Altxerrikoa barne. Are arraroagoa da sugeak topatzea; izan ere, "suge-formadun" irudiak eta altzari-arteko objektuetan ikusten direnak alde batera utzita, Paleolitoko bi labar-irudi soilik daude Iberiar Penintsulan sugearen irudia erakusten dutenak, Kantabriako Hornos de La Peña haitzulooan bata, eta Albaceteko Cueva del Niño haitzulooan, bestea. Erbi baten irudiak osatzen du, Altxerrin, berezitasun-sorta hori. Labar-artearen esparruan, beste bat soilik ezagutzen da, Le Gabillou haitzulookoa, Frantzian.

Altxerriko hormetan margotutako animaliak Madeleine aldiaren amaiera aldera Bizkaiko Golkoko kostaldean zeuden animalien erakusgarri dira. Animalia horien artean, bitxia da bisontearen kasua, gutxitan ehizatzen zuten arren, askotan irteten baita hormetan irudikatua. Bisontea arte-konposizioen erdigunean ageri ohi da Madeleine aldiko beste labar-multzo askotan ere, baina horren arrazoia ideologikoa da. Altxerriko hormetan ageri diren beste animalia batzuk garai hartako jarduera ekonomikoaren adierazgarri dira, eta erakusten digute zer-nolako garrantzia zuen Frantziako hego-mendebaldeko lautadetatik isurialde kantauriarrean igarotzen ziren elur-oreinen ehizak, bai eta ahuntzen (Capra pyrenaica, Rupicapra), zerbidoen eta zaldien ehizak ere. Horma horien bidez dugu, halaber, ibaien eta estuarioen baliabideen ustiapenaren berri. Hegazti batzuk ere ikusten dira hormetan.

Irudikatutako gaiez gain, irudiak egiteko teknikak izan dira Altxerriko arte-adierazpenen beste berezitasunetako bat. Lehentxeago azaldu dugun moduan, prozedura tekniko ugari erabili ziren Altxerriko arte-multzoa egiteko, eta, zenbaitetan, teknika bat baino gehiago erabili zituzten irudi bat egiteko. Altxerriko irudien teknika-bereizgarri handienetako bat da hormaren gainaldea arraspatzea irudiak egiten hasi aurretik; izan ere, haitzuloaren geologia-ezaugarrien eraginez, buztin-geruza handiak sortzen ziren hormetan deskaltzifikazioaren ondorioz. Estiloarekin dute zerikusia beste berezitasun batzuek, eta horien artean nabarmentzekoa da bisonteen siluetak marra-sortatan karrakatuak daudela kasu batzuetan. Oso haitzulo gutxitan ikusi da lan egiteko modu hori. Ekaingo irudi baten dugu, hala ere, teknika hori ikusteko aukera gutxietako bat.

Betidanik Altxerriko haitzuloaren “berezitasun” horiek nabarmendu dira, baina egia da, era berean, egin ziren garaiko ezaugarri orokorrak dituzte haitzulo irudiek. Frantziako eta eremu kantabiarreko haitzuloetako irudiek garai hartan zituzten ezaugarri komun asko biltzen dituzte Altxerriko irudiek, eta begiratu batean ikusten da irudi oso naturalak direla. Pintatutako animalien berezitasuna azpimarratu dugu lehen, baina ez da ahaztu behar bisonteen irudien kopurua oso handia dela gainerako animalien irudiekiko proportzioan, eta hori ezaugarri orokor bat zela garai hartako labar-multzoetan. Lehen adierazi dugun beste ezaugarri berezietako bat gai “arraroen” kopurua da, baina bitxitasun hori ez da hainbestekoa Altxerriren garaiko (14500-11700 BP) labar-multzoak bakarrik eta soilik kantauriar isurialdeko eta Pirinioetako haitzuloak aintzat hartzen baditugu; izan ere, isurialde kantauriarrean garai horretan margotu ziren elur-oreinen kopuru adierazgarriak, eta Paleolitoan margotu ziren fantasiako animalia urriak garai eta zonalde horretan margotu ziren gehien-gehienak. Bestalde, Madeleine aldiaren amaieran isurialde kantauriarrean nahiz Pirinioetako iparraldean zeuden haitzuloetako labar-artearen ezaugarri orokor edo komun ugari biltzen dituzte Altxerriko labar-irudiek: animalia-irudien forma, irudiak kolorez betetzeko modua, animalien atal batzuk (begiak, belarriak, apaxak, adarrak, etab.) marrazteko modua, irudien perspektiba, akaberen nolokotasuna, irudien itxura naturala eta, finean, baita erabilitako tekniken konbinazioaren konplexutasuna ere. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Altxerriko III.1. multzoko irudi bat, elur-orein baten burua erakusten diguna ezkererantz orientatuta. Silueta-ingurunea marra beltzez du pintatua eta aurpegian eta bularraldean grabatu-zerrenda ildaskadunak ditu, irudia hartzen duen haitza argitzen dutenak. Elur-orein bat erakusten digun aldetik, Pirinioetako iparraldeko labar-artearen sarri ageri den gai bat dakarkigu irudi horrek. Irudia kolorez betetzeko modua ere oso ohikoa izan zen isurialde kantauriarreko haitzuloetan Behe Madeleine aldian eta, akaso, Erdi Madeleine aldian (16.500-13.500 BP), sarritan ikusten baita teknika hori oreinen buruetan.

Laburbilduz, esan dezakegu Altxerriko labar-arte bat datorrela erabat Madeleine aldiaren amaiera aldeko haitzuloetan egiten zer artearekin (bisonteen irudi asko daude, irudiak egiteko ezaugarriak garai hartako ezaugarri orokorrak dira, figura abstraktu gutxi ditu, etab.), baina, era berean, berezitasun handiak dituela, irudiek askotariko gaiak lantzen dituztelako, eta grabatzeko eta karrakatzeko prozedura ugari erabili zituztelako (esaterako, euskarria garbitzea irudia egiten hasi aurretik, eta, batzuetan, baita hura pintatu ondoren ere). Altxerri badiu, gainera, beste ezaugarri batzuk, Paleolitoko artearen ikertzaileen arreta erakarri dutenak. Munduan Paleolitoko labar-arteko multzo gehien eta kalitate handienekoak dituzten bi zonaldeen artean dago kokatuta Altxerri, isurialde kantauriarrean eta iparralde piriniararren artean. Bitarteko eremu izatearen ezaugarri horrek indar handia hartzen du, haitzulo irudien gaiak eta haiek pintatzeko moduek bi zonaldeetako ezaugarriak dituztelako; hala, “Pirinioetako mendebaldeko ertzeko” eta “isurialde kantauriarrean ekialdeko ertzeko” multzoa da aldi berean. Horrenbestez, laborategi bikaina da Altxerri bi zonalde handi horiek Paleolitoaren amaiera aldera izan zituzten harremanak ikertzeko. Bestalde, irudi gehien dituen haitzuloa da isurialde kantauriarrean garai hartan zeuden haitzuloen artean, eta horrek aukera ematen du haien hainbat ezaugarri aztertze (kokapen-banaketa, alderdi teknikoak, bisibilitatea, gaiak, etab.), modu adierazgarri batean; izan ere, emaitzak ez dira oso esanguratsuak izaten, eta, zenbaitetan, ezin izaten da emaitzarik lortu, irudi gutxi dituzten multzoetan eta garai bat baino gehiagoko irudiak biltzen dituzten haitzuloetan.

Azkenik, Altxerri B multzori erreparatu badiogu, nabarmentzekoa da zer ikusgarriak diren haren irudietako batzuk, eta, bereziki, lau metroko luzera duen bisonte gorri handia, Paleolitoko artean topa daitekeen irudi handienetako bat. Beste alderdi azpimarragarri bat da Goi Paleolitoko labar-multzo zaharretako batzuekin (esaterako, El Castillo haitzuloarekin eta Chauvet-eko haitzuloarekin) dituen antzekotasunak, argigarriak izan baitaitezke Paleolitoko labar-artearen mugimendu soziokultural konplexuaren sorrerari buruzko informazioa eskuratzeko.

I. EREMUA - GRUPO I



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXX XXX



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXX XXX




XXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXX XXX



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXX XXX




II. EREMUA - GRUPO II



XXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXX XXX



XXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXX XXX



XXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXX XXX




XXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXX XXX



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXX XXX

58




XXXX XXX XX XXX XXX
XXXXX XXX dddddd


III. EREMUA - GRUPO III




XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXX



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX



▲ 14. irudia: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX




▲ XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

60



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXX XXXXXXXXXXXX



XXXXXXXXXXXX XXXXXXXX XXXXXXXXXXXX



Capítulo

VI

Bisontes, renos y peces en las paredes de Altxerri

AITOR RUIZ REDONDO Y CÉSAR GONZÁLEZ SAINZ
UNIVERSIDAD DE CANTABRIA

Cuando hablamos de Altxerri hacemos referencia, en realidad, a dos conjuntos parietales integrados en un mismo complejo kárstico. Se trata, con toda probabilidad, de dos cuevas que originalmente tenían entradas distintas y que los paleolíticos entendieron separadamente. Además de su relativo aislamiento espacial, es muy distinta la cronología de uso de una y otra cueva durante el Paleolítico superior. Nos detendremos con un poco de detalle en esa separación, tanto en el espacio como en el tiempo.

